

1-Eri

Neskato bat medikuarengana joaten da bigarren aldiko eta erraten dio:

-Oraino eri naiz! Ez naiz sendatzen!

Medikuak ihardesten dio:

-Segitu duzuia ene ordenantza?

-Segitu? Leihotik airatu zait, laugarren estaiatik.

2-Ehunzango

Zergatik ehunzango bat ez da sekulan futboleant aritzen?

-Bere zapata guziak eman orduko futbol partida bukatua delako.

3- Alfer

Alfer batek galdegiten dio bere lagunari:

- Zer egiten duzu?

- Ezer.

- Laguntzen ahal zaitut?

4-Buru handi

Totok amari erraten dio ikastolatik ateratzean:

-Ama! Ikastolan denek buru handi deitzen naute!...

Eta amak erantzuten dio (burua ferekatuz eskuarekin borobil handiak eginez):

-Ez ez maitea! Ez duzu batere buru handia!

5-Puzker buru

-Badakizue zergatik puzker buru deitzen nauten?

-Ez...

-Pruutt! Nik ere ez!

6- Ibai gorri

Xakur beltz bat ibai gorri batean bainatzen da. Nola ateratzen da?

-...

-Bustia.

7- Puntu komuna

Zer da balea baten eta irakasle zintzo baten arteko puntu komuna?

Biak lurretik desagertzeko zorian dira.

8- Elefante

Zergatik elefanteak ordenagailuez beldur dira?

Saguez beldur baitira.

9- Beharri handi

Mutiko batek amari erraten dio:

- Ikastolan denek erraten didate beharri handiak ditudala!

- Baina ez, ... ene lapina!

10- Zozo

Bi zozo mintzo dira:

- Zergatik intsektizida ematen duzu zapatetan?
- Xinaurriak baititut oinetan!

11- Estralurtar

- Toto! Zergatik harri horiek ematen dituzu lurrean?
- Estralurtarrak ez jiteko.
- Baina ez da estralurtarrik, Toto!
- Ikusten? Martxan da!

12- Geografia

Bi zahar, Joanes eta Manex, beren bidaien kontatzen ari dira.

Joanes hasten da:

- Ni Baionan izan nauk, ospitalean. Bestenaz beste nehon ere!

Manexek aldiz dio:

-Egia? Ni mundu osoan ibilia nauk: Errusian zangoak hormatu zaizkidak , Australian ostruka jan diat, Indonesian gatukia dastatu diat, Perun...

-Non? Peruren etxean?

-Ez, Hego Ameriketan!

-A, barka ezak! Ez diat geografia ezagutzen.

- Nik ere ez, ez nauk sekula izan Geografian!